

**EMILE LARREREN *ENE ARTZAIN-ETXOLAK******Nor Emile Larre, nolakoa haren liburua***

Eskolako aulkietan euskara entzun ez genuenok, sarritan ibili gara noraezean, hizkera gozo eta jatorraren iturria non aurkituko. Azken urteotan, zorionez, euskarazko eskaintza nabarmen areagotu dela nonahi igar daiteke. Han-hor-hemenka, liburu, idatzi eta paper ugari ditu eskura oraingoan euskal irakurleak, non bazka eta zerekin ase egoki zertzeko. Aukeratu beharra, hortaz, lehen eskas eta urri zen euskal letren baratzean.

Badira, edonola ere, erruz argitaratzen diren horien artean, gozamenerako oparirik biziak direnak. Besteak beste, eta bete-betean, Emile Larre apez baxenafarrak oraintsu ondutakoa : *Ene artzain-etxolak*. Antonio Zabalak esku trebez aurrera daraman *Auspoa* sailekoa dugu hori. Sail horren titulu-hurrenkera osatzera dator kimu berria eta, zalantzarik gabe, ale baliotsua eta gomendagarria.

Izena bera esanguratsu oso Larreren liburuan. Sortzez bai-gorriarra da Emile Larre, "Belarria" etxekoa (1926). Izatez, bere baitara ezaugarri asko biltzen dituen euskaltzalea dugu. Apez, euskaltzain, kazetari, bertsolaritza sustatzaile... horiek guztiak gehitu ahal izango genizkioke euskal idazle horren biografiari, euskalgintzan gauzatu duena taxuz adieraztekotan. Argigarri, beharbada, Pablo José Aristorenaren hitzak. Artezki laburbildu du hark Larreren izatea, baxenafarraren goitik beherako argazkia eginez: "*Lafitteren ume, Ipar Euskal Herriaren ezagule,*